

## IRABAZI-ITURRIAK

Gure produktuaren irabazi iturriak adieraziko ditugu atal honetan. Bestalde, hilabetero zenbat irabaziko dugun ere adieraziko dugu. Diru honekin kostuak aldatzea da helburu nagusia.

Lehenik, gure kostuen egitura kontuan hartuta gure hasierako inbertsioa nola ordainduko dugun zehaztuko dugu. Gure hasierako inbertsioa 3.722€-koa da, baina gastu gehiago ere edukiko ditugu, kostu finakoak eta aldakorrak. Dena kontuan izanda 14.940€ beharko genituzke, baina diru pixkat gehiago badaezpada izatea gomendagarria dela pentsatu dugu.

|                           | PREZIOA | TOTALA                         |
|---------------------------|---------|--------------------------------|
| Mailegua Bankuari         | 4.000€  | 4.000€                         |
| Bakoitzak jarritako dirua | 2.000€  | 2.000€x6(pertsona)=<br>12.000€ |
| <b>TOTALA</b>             |         | <b>16.000€</b>                 |

Hau ikusita gastuak ordainduta egongo dira eta gainera badaezpada diru pixkat edukiko dugu arazorik baldin badago.

Orain gure hilabeteko irabazi iturriak jarriko ditugu, hauek gure orraziarengandik ateratako irabaziak izango dira.

| SALDUTAKO KOPURUA | PREZIOA    | DIRU-SARRERA<br>TOTALA |
|-------------------|------------|------------------------|
| <b>500</b>        | <b>26€</b> | <b>13.000€</b>         |

Hurrengo hilabeteko gastuak ordaintzeko, gure irabaziak erabiliko ditugu. Hasierako inbertsioa behin bakarrik ordainduko da, eta horregatik, lehenengo hilabetean ordaindutako 3.722€k ez dira berriro ordaindu beharko. Horrela, hurrengo hilabetean ordaindu beharreko gastuak 14.940€ izango dira, baina 3.722€ ken, 11.218€ ordaindu beharko ditugu. Irabazi horiekin, 1.782€ko diferentzia geratuko da, eta hori badaezpadarako gordetzeko aukera izango dugu.